# SALUTACION

*En la Revista del año pasado hablaba yo, en la introducción, de las «voces amigas» que me alentaron. La vuestra y la de todos fue una de ellas. Vosotros me animasteis a tender ese puente entre los renterianos de aquí y los que residen fuera, ese lazo de unión trenzado de añoranzas y recuerdos.*

*La empresa no era nada sencilla, el echar a andar después de un largo descanso no es fácil. Yo veía que la tarea era ardua y económicamente costosa; sobre todo, con la doble proyección de que la Revista llegara gratis a todos los rincones del mundo donde hubiera un renteriano, y se repartiera a un precio simbólico entre la población.*

*Si me he animado a seguir adelante es por la satisfacción íntima que me han producido las cartas de agradecimiento que he recibido de todos los países. Alguna de ellas me ha emocionado.*

*En estas publicaciones soy partidario de buscar un tema central, aunque no toda la Revista gire alrededor del mismo.*

*Hay un hombre en cada pueblo, a quien un día sin saber ni cómo ni por qué, le arrancan de su mundo, de su profesión, de sus negocios, un poco también de su familia, y le ponen a gobernar a esa otra gran familia que es la comunidad de vecinos, con sus disgustos y sinsabores y alguna que otra satisfacción íntima. A ese hombre anónimo, a ese Alcalde de todos los tiempos, a ese que se va sucediendo cada ciertos años, se dedica esta publicación.*

*Cierto día cayeron en mis manos reproducciones estupendas de antiguos Alcaldes de Rentería, algunos de principios de siglo. Me pareció que debían ser recopiladas y publicadas y de ahí nació la idea.*

*Y para terminar, mi agradecimiento a todos y particularmente, en este caso, a don José María Salaverría Errazquin, corresponsal de* El Diario Vasco, *que ha sido el autor y recopilador de esta magnífica colección de fotografías.*

*Y nada más. Os deseo unas felices «magdalenas»,*

*Vuestro Alcalde,*

*Ramón Múgica Lecuona*



*Joan zan urteko errebistan itz-aurrez esaten nizuten zuen gogo onak, zuen iritziak, berotu eta beartu nindutela OARSO berriro argitaratzera, ikusirikan gañera errenderiar guziok, erritik urruti dauzkagunak, eta, emen erri berean bizi geranok elkarganatzeko, OARSO genduela biderik zuzenena. Bertan azaltzen diran goraberak, zenbat eta zenbat oroigarri ekartzen dizkigute... batez ere ez dagozteneri, zenbaterano gogoarazten die bere erria...!*

*Orduan esan nuan bezela, lana ez zan erreza. Izkutuan edo lo eta geldi zegon lanari berriro ekiteak, buruauste aundiak eman zizkigun; lan biltzeak batetik eta diru bearrak bestetik. Batez ere onek gure asmorik beroena bete naiean: mundu guzian sakabanatuta dauzkagun errenderiarrak, gure errebista artu zezatela ezertxo ordaindu gabe, eta erritarren artean ere ezin zitekela garestigi zabaldu.*

*Aurrera jarraitu badet, zuek eman didazuten laguntzari esker da. Karta asko artuak ditut, bai emen bertako erritarrenak, baño batez ere, mundu zear dabiltzan erriko-seme askorenak. Batzu-batzuek biotza ederki ikutu didate...*

*Errebistan gai nagusi bat erabiltzea da nere naia. Onek ez du esan nai beste gaiak ez dirala ikutuko.*

*Badegu, eta beti izan da, erri guzietan gizon bat. Gabetik goizera, bat batean, ateratzen dute bere bizi modutik, bere lanetik, bere lagun artetik, eta baita ere pixka bat, bere familitik. Gizon au beste famili aundiagoa agintzen jartzen dute, bere erritarrak osatzen dutenena; batzuen txaloekin, beste batzuen asarrearekin. Gizon izkutu ori, betiko Alkate jaun ori, urteen zear agintean aldatzen dan gizon ori, degu aurtengo OARSO errebistaren gai nagusia.*

*Alako egun batean nere eskuetara eldu zan Errenderi'ko Alkate izandutakoen argazki sorta eder bat. Gizaldiaren asierakoak batzuek. Ez al zuten merezi Alkate jaun aiek gure oroipena?*

*Zergatik danak bildu ta argitaratu ez? Bururatu eta egin. Emen dezute ondorena.*

*Bukatzera noa. Biotz biotzez eskerrak guziori, eta batez ere, gure lagun on dan Joxe Mari Salaverria Errazquin jaunari, bera izan baida argazki oien eta bere bildumaren egillea.*

*Besterik gabe, guziori festa zoriontsuak opatuaz,*

*Zuen Alkate,*

*R. Mugika'k*

